**Bizkaiko Foru Aldundiaren 89/2016 FORU DEKRETUA, maiatzaren 10ekoa. Honen bidez, Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, haurren eta gazteen arloan lanean diharduten Bizkaiko aisialdi eta astialdiko erakundeek 2016ko udan udalekuak eta kanpamentuak antolatzeko, garatzeko eta/edo ekitaldi horietan parte hartzeko.**

Euskal Autonomia Estatutuaren 3. eta 37.3.a) artikuluek bakarreko eskumena ematen diete lurralde historikoei beren autogobernu-erakunde propioen antolaketa, araubide eta jarduerari dagokionez.

Aipatutako arauen arabera, eta Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, lurralde historikoei dagokie, besteak beste: bere lurraldearen barruan, Erkidego Osorako Erakundeen legeria betearaztea, erkidegoko garapenaren eta emakumearen, haur, gazte eta adinekoentzako politikaren arloan eta aisialdirako politikaren arloan. Baina, nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek zuzeneko jarduna ere egin ahal izango dute.

Testuinguru hori gauzatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen barruan, kultura diziplina guztietan bultzatu, sustatu eta hedatzeko helburua duten jardun-lerro batzuk dauzka abian.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 8.4 eta 14.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera, lurralde historikoek helburu horietarako erabateko finantza- eta aurrekontu-autonomia dute beren eskumenak erabiltzeko.

Horregatik guztiagatik eta eskumenei buruzko artikulu horiek direla bide, Bizkaiko Foru Aldundiak, jakinda Bizkaian elkartegintzarako joera dagoela eta hori positiboki baloratuta eta elkartegintzari lagundu nahian, diru-laguntzak ematen dizkie, udan, haur eta gazteentzako jolasteko aisialdia, denbora-pasa, bizikidetza eta lankidetza bultzatzen duten programa, proiektu eta jarduerei. Era berean, eta udan egiten diren jolas- eta heziketa-jarduerak antolatzea sustatzeko, diru-laguntzak ezarri nahi ditu Bizkaiko aisialdi eta astialdiko erakundeek halako ekitaldiak antolatu eta garatzeko, edo ekitaldi horietan parte hartzeko.

Horiek horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak lehentasunezkotzat jotzen du genero-ikuspegia bere proiektu guztietan sartzea, batez ere, gazteen kolektiboari lotutakoetan; izan ere, sektore horretan dira bereziki beharrezkoak genero-berdintasunaren arloko sentsibilizazioa eta hezkuntza, desberdintasunak desagerrarazteko, berdintasuna sustatzeko eta apurka-apurka emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunera iristeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat.

Horregatik, eta modu positiboan laguntzeko gazteen testuinguruan desberdintasuna desagerrarazten eta berdintasuna sustatzen, genero-ikuspegia diruz lagundutako jardueraren helburu eta edukiaren parte izango da, eta oinarri arautzaile hauen eduki osoan izango du eragina.

Laguntzak emateko araubidea ezohikoa den hainbanaketa sistema izango da; Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluan aurrez ikusita dago sistema hori.

Bizkaiko Foru Aldundiak ezohikoa den hainbanaketa-araubidea aukeratu du diru-laguntza hauetarako deialdia egitean. Izan ere, deialdi honen hartzaile diren erakundeek -onuradun dira foru dekretu honetan ezarritakoa bete ondoren eta haien proiektuen arteko erkaketarik egin gabe- deialdian eskatutakoari jarraiki eskabidean aurkeztutako datuetan oinarritua eta deialdiaren kuantifikazio-irizpideen arabera jasoko dituzte diru-laguntzak. Horretarako, foru dekretu honetan aurrekontu-muga gisa gehienez ere ezarritako guztizko zenbatekoa hainbanatuko da.

Azaldutakoa dela bide, ikusita zer xedatzen den Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17, 39 k) eta 64.3 artikuluetan, Foru Admi-

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 89/2016, de 10 de mayo, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a las entidades vizcaínas de ocio y tiempo libre que trabajen en el ámbito de la infancia y juventud para la organización, desarrollo y/o participación en colonias y campamentos de verano durante 2016.**

Los artículos 3 y 37.3.a) del Estatuto de Autonomía del País Vasco, atribuyen a los Territorios Históricos competencia exclusiva en materia de «Organización, régimen y funcionamiento de sus propias instituciones privativas de autogobierno».

En base a los citados preceptos y de acuerdo con lo previsto en el artículo 7.c de la Ley vasca 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, corresponde a estos últimos, entre otras, «la ejecución dentro de su territorio de la legislación de las Instituciones Comunes en materia de Desarrollo comunitario, condición femenina. Política infantil, juvenil, de la tercera edad, ocio y esparcimiento, sin perjuicio de la acción directa en estas materias por parte de las Instituciones Comunes del País Vasco».

En aras a hacer efectivo tal escenario, la Diputación Foral de Bizkaia tiene en marcha diversas líneas de actuación tendentes en su propio ámbito competencial, al fomento, la promoción y la difusión de la Cultura en sus distintas disciplinas.

De acuerdo con lo dispuesto en los artículos 8.4 y 14.1 de la ya citada Ley vasca 27/1983, de 25 de noviembre, los Territorios Históricos gozan a tales efectos de plena autonomía financiera y presupuestaria para el ejercicio de sus competencias.

Por todo ello, y en virtud de los citados títulos competenciales, la Diputación Foral de Bizkaia, conociendo y valorando positivamente la tendencia asociativa existente en Bizkaia, viene incidiendo en el apoyo al asociacionismo, mediante la concesión de subvenciones en favor de programas, proyectos y actividades que potencien el ocio recreativo y favorezcan el entretenimiento, la convivencia y la cooperación, entre la población infantil y juvenil en períodos vacacionales. Igualmente, y con el objetivo de fomentar la programación de actividades lúdico-educativas que se desarrollen en el período estival, pretende establecer subvenciones que favorezcan la organización y desarrollo de este tipo de eventos, o bien la participación en los mismos, por parte de las Entidades de Ocio y Tiempo Libre de Bizkaia.

En este contexto, la Diputación Foral de Bizkaia, considera prioritaria la incorporación de la perspectiva de género en todos sus proyectos y en especial en aquellos que inciden en el colectivo joven, como sector en el que la sensibilización y educación en la igualdad de género resulta especialmente necesaria para eliminar desigualdades, promover la igualdad, y alcanzar paulatinamente una paridad real entre hombres y mujeres en el marco establecido en la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para Igualdad de Mujeres y Hombres.

Por ello, y con el objetivo de contribuir positivamente a la eliminación de la desigualdad y a la promoción de la igualdad en el contexto juvenil, la perspectiva de género formará parte de la finalidad y contenido de la actividad subvencionada, impregnando el contenido de las presentes bases reguladoras.

El régimen de concesión de las subvenciones se rige por el excepcional sistema de prorrateo, previsto en el artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

El régimen excepcional de prorrateo por el que ha optado la Diputación Foral de Bizkaia al convocar estas subvenciones, responde a que esta convocatoria está dirigida a entidades que, cumpliendo de antemano una serie de requisitos exigidos por el presente Decreto Foral, y sin darse una comparación entre los distintos proyectos, percibirán las ayudas en base a los datos aportados en la solicitud según exigencia de la propia convocatoria y en función de los criterios de cuantificación contenidos en ella, procediéndose al prorrateo del importe global máximo dispuesto como límite presupuestario en el presente Decreto Foral.

En virtud de lo expuesto y vistos los artículos 17, 39 k) y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, la Norma Foral 5/2005, de 31 de

cve: BAO-BOB-2016a092

nistrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartu zen foru arau hori garatzeko Erregelamenduan eta garatuz Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen 2016ko martxoaren 8ko 42/2016 Foru Dekretuan xedatutakoa, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2016ko maiatzaren 10eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATZEN DA:

**1. artikulua.—*Xedea***

1. Foru dekretu honen xedea da Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldiko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea, jarduera-programak antolatu eta garatzeko eta/edo bertan parte hartzeko, baldin eta programak haurren eta gazteen arlokoak badira eta jolas- eta heziketa-helburuarekin antolatutako ekitaldietan egiteko badira. Programa horiek udan egin beharko dira, eta honako jarduera hauek jasoko dituzte:

— Kanpamentu finkoak eta kanpamentu ibiltariak.

— Udalekuak eta udaleku irekiak.

— Auzolandegiak.

2. Udan kanpamentu ibiltariak, auzolandegiak, udalekuak, udaleku irekiak, eta kanpamentu finkoak antolatu eta garatzeari edo ekitaldi horietan parte hartzeari zuzenean lotutako gastuak lagunduko dira diruz, betiere honako betekizun hauek betetzen badituzte:

— Ekitaldien zuzendariak Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunak eman edo homologatutako titulazioa eduki behar du, edo, bestela, aisialdi eta astialdiko edo animazio soziokulturaleko titulazio baliokidea. Pertsona horrek zuzendari jardun behar du eta kanpamentuak dirauen aldi osoan bertan egon. Zuzendari bat ezin izango da aldi berean bi ekintzen edo gehiagoren zuzendari izan.

— Ekitaldiko begirale guztiek Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunak eman edo homologatutako titulazioa behar dute, edo, bestela, aisialdi eta astialdiko edo animazio soziokulturaleko titulazio baliokidea. Halaber, pertsona horiek begirale jardun behar dute eta kanpamentuak dirauen aldi osoan bertan egon. Guztira, begirale kopurua honako hau izango da: hamar (10) parte-hartzaileko edo frakzioko bat (1).

  Bestalde, Adin Txikikoen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak, ondoren 26/2015 Legeak eta Boluntarioei buruzko 45/2015 Legeak aldatu dutenak, ezartzen du adingabeekin lan egin ohi duten profesionalek zein boluntarioek nahitaez aurkeztu behar dituztela Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala emandako ziurtagiri negatiboak. Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala jardunean hasi arte, ziurtagiri horiek Auzi-iheslarien Erregistro Zentralak egingo ditu.

— Kanpamentu finko eta udalekuen kasuan, parte-hartzaileak 6 urtetik 18 urtera bitartekoak izango dira; kanpamentu ibiltarien kasuan, 14 urtetik 30 urtera bitartekoak, eta auzolandegien kasuan, 18 urtetik 30 urte bitartekoak.

  Kasu guztietan, parte-hartzaileak udalekua edo kanpamentua egiten denean duen adina hartuko da kontuan.

  Udalekua edo kanpamentua egiten denean Bizkaiko Lurralde Historikoan helbidea duten parte-hartzaileak baino ez dira kontuan hartuko.

— Kanpamentu finko, udaleku, udaleku ireki gutxienez ere 15 parte-hartzaile egon behar dira, eta kanpamentu ibiltari eta auzolandegietan, berriz, 10 parte-hartzaile gutxienez.

— Kanpamentu, udaleku edo auzolandegien iraupenak gutxienez ere sei (6) egunekoa edo bost (5) gauekoa izan behar du, eta gehienez ere hamabost (15) egunekoa.

mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, su Reglamento de desarrollo aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo y en desarrollo del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 42/2016 de 8 de marzo, por el que se aprueba el reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera y Cultura, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada titular del Departamento de Euskera y Cultura, previa deliberación y aprobación de esta Diputación Foral, en reunión de 10 de mayo del año 2016.

SE DISPONE:

**Artículo 1.—*Objeto***

1. Constituye el objeto del presente Decreto Foral, la aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales durante el ejercicio 2016, destinadas a la organización y el desarrollo de programas de actividades, o bien la participación en ellos, que vayan dirigidos a los campos de la infancia y juventud y que puedan ser aplicados en eventos que se organicen con una finalidad lúdico-formativa. Dichos programas deberán ser realizados durante el período estival y hacer referencia a:

— Campamentos fijos y campamentos volantes.

— Colonias y colonias Abiertas.

— Campos de trabajo.

2. Serán objeto de subvención los gastos directamente relacionados con la organización y desarrollo de campamentos volantes, campos de trabajo, colonias, colonias abiertas y campamentos fijos de verano, o bien la participación en ellos, siempre que éstos cumplan los siguientes requisitos:

— Que cuenten con un/a Director/a con titulación expedida u homologada por la Dirección competente del Gobierno Vasco, o con titulación equivalente en ocio y tiempo libre o animación socio-cultural, el/la cual deberá ejercer como tal y garantizar su presencia física durante todo el período de duración del campamento. El/la mismo/a Director/a no podrá ejercer su función en dos o más eventos distintos que coincidan simultáneamente en el tiempo.

— Que el total de monitores/as asistentes lo sean con titulación expedida u homologada por la Dirección competente del Gobierno Vasco, o con titulaciones equivalentes en ocio y tiempo libre y animación socio-cultural, debiendo así mismo, ejercer como tales y garantizar su presencia física durante todo el período de duración del campamento. Este total de monitores/as se considerará sobre el ratio de un (1) monitor/a por cada diez10) participantes, o fracción.

  Por otra parte, la Ley Orgánica 1/1996, de Protección Jurídica del Menor, modificada por la Ley 26/2015 y la Ley 45/2015, de voluntariado establecen la obligación de que se aporten certificados negativos del Registro Central de Delincuentes Sexuales para todos los profesionales y voluntarios que trabajan en contacto habitual con menores. Hasta la entrada en funcionamiento del Registro Central de Delincuentes Sexuales, estos certificados se expedirán por el Registro Central de Penados.

— Las edades de las personas participantes estarán comprendidas entre los 6 y los 18 años de edad, para el caso de los campamentos fijos y colonias, de 14 a 30 años para campamentos volantes, y de 18 a 30 años para los campos de trabajo.

  En todos estos casos se tendrá en cuenta la edad de la persona participante al inicio de la celebración de la colonia / campamento.

  Solamente serán tenidas en cuenta las personas participantes con domicilio en el Territorio Histórico de Bizkaia a fecha de celebración de la colonia o campamento.

— Contar con una asistencia mínima de 15 participantes para campamentos fijos, colonias, colonias abiertas, y 10 participantes mínimo para campamentos volantes y campos de trabajo.

— Para campamentos, colonias y campos de trabajo tener una duración mínima de seis (6) días o cinco (5) noches, y máxima de quince (15) días.

cve: BAO-BOB-2016a092

— Udaleku irekietarako iraupenak gutxienez bost (5) egunekoa izan behar du, eta gehienez hamabost (15) egunekoa.

— Oro har, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 170/1985 Dekretuan xedatutakoa bete behar da. Izan ere, dekretu horren bidez ezartzen da haur eta gazteentzako kanpamentuen, udalekuen, auzolandegien eta martxa ibiltarien araubidea.

Erakunde eskatzaileak antolatu ez dituen jarduera edo ekitaldietan parte hartzen denean, diru-laguntzaren zenbatekoan ez da esleituko txanda bakoitzeko kopuru finkorik; bakarbakarrik esleituko dira egonaldietarako parte-hartzaileko eta eguneko dagokion zenbatekoa eta, hala denean, zenbateko horri dagozkion gehikuntzak.

3. Diru-laguntzarako eskabidean aurkeztutako proiektuak 2016ko ekitaldiko udaren barruan burutu beharko dira.

4. Deialdi honetako helburu diren programei zuzenean lotuta ez dauden gastuez gain, honako jardueretako bat edo haien modalitateren bat jasotzen duten programak ere foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:

a) Berariaz lehiaketa-izaera agertzen duten kirol-programak edota kirol espezialitate zehatz batean edo batzuetan oinarrituta daudenak.

b) Kirol-erakundeek sustatutako udako kirol-kanpusak.

5. Deialdi honi dagokionez, gastuak diruz laguntzeko gastutzat joko dira, baldin eta indarrean dagoen araudiaren arabera egoki justifikatzen badira, dekretu honetan ezarritako epearen barruan egiten badira, beharrezkoak badira eta proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten badiote.

6. Foru dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea; ez dira inoiz finantzatuko udalekua/kanpamentua egiteagatik sortutako gastu guztiak.

**2. artikulua.—*Onuradunak***

1. Erakunde eskatzaileak deialdi honen onuradun izan ahal izateko, ezin dira sartuta egon maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluko inguruabarretan; haur eta gazteak hezteko aisialdian eta astialdian egin behar dute lan, eta honako betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Onuradunaren egoitza Bizkaian izatea.

b) Erakundeen estatutuetan jasotzea beren helburua haur eta/edo gazteen arloan garatzen dela.

c) Irabazi asmorik gabe eratuta egotea.

d) Jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoan egitea.

e) Agiri bidez frogatzea jarduera egiten den bitartean gertatzen diren ezbeharrak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontrataturik daukatela.

2. Onuradun izateko, pertsona juridiko lehiakideek egiaztatu behar dute esperientzia eta ibilbide nahikoak dituztela emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko jardueren garapenean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 20.2 artikuluarekin bat etorrita foru dekretu honetako 4.4 artikuluan ezartzen den moduan (II-E3 eranskina).

3. Honako hauek foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude:

a) Kirol klubak eta elkarteak.

b) Ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak.

c) Trebakuntza eskolak, baldin eta haur eta gazteen arloan lan egiten duten erakunde batzuen egoitza sozial bera badute eta erakundeok ere laguntzak eskatzen badituzte foru dekretu honen babesean

4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 3.1 eta 24.2 artikuluetan ezarritakoarekin bat, deialdi honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

— Para colonias abiertas tener una duración mínima de cinco (5) días, y máxima de quince (15) días.

— En general, cumplir con lo dispuesto en el Decreto 170/1985, del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, por el que se regula el régimen de campamentos, colonias, campos de trabajo y marchas volantes infantiles y juveniles.

Cuando se trate de participación en actividades o eventos organizados por otros entes que no sean la entidad solicitante, solamente se asignará en el importe de la subvención la cantidad correspondiente a las estancias por participante y día y los incrementos correspondientes a ésta, si hubiere lugar.

3. Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el período estival del ejercicio 2016.

4. Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Decreto Foral, además de aquellos gastos no relacionados directamente con los programas objeto de la presente convocatoria, aquellos programas que incluyan las siguientes actividades o alguna de sus modalidades:

a) Las que impliquen específicamente una manifestación deportiva de carácter competitivo o centrada en torno a una/as especialidad/es deportiva/as concreta/as.

b) Los campus deportivos de verano promovidos por entidades deportivas.

5. Se consideran gastos subvencionables a los efectos de esta convocatoria, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en el plazo previsto en el presente Decreto, sean estrictamente necesarios y respondan de forma inequívoca a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

6. La finalidad del presente Decreto Foral será la de apoyar y completar la acción de las entidades solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la colonia/campamento.

**Artículo 2.—*Beneficiarias***

1. Podrán ser entidades beneficiarias de la presente convocatoria las entidades que, no estando incursas en las circunstancias del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, trabajen en el marco del ocio y tiempo libre formativo infanto-juvenil y cumplan los siguientes requisitos:

a) Tener fijado su domicilio social en Bizkaia.

b) Que en sus estatutos se contemple que su objeto o finalidad se desarrolla en el campo de la infancia y/o juventud.

c) Que se encuentren constituidas sin ánimo de lucro.

d) Que su ámbito de acción se desarrolle en el Territorio Histórico de Bizkaia.

e) Que acrediten tener contratada póliza de seguro de responsabilidad civil que dé cobertura a los posibles siniestros que puedan producirse en el transcurso de la colonia/campamento.

2. Para obtener la condición de beneficiaria, las personas jurídicas concurrentes deberán demostrar experiencia y trayectoria en el desarrollo de actuaciones dirigidas a la igualdad efectiva de mujeres y hombres, en los términos previstos en el artículo 4.4 del presente Decreto Foral, en coherencia con el artículo 20.2 de la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres (Anexo II-E3).

3. Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Decreto Foral:

a) Los Clubes y Asociaciones Deportivas.

b) Las Asociaciones de madres y padres de alumnado de centros educativos.

c) Las Escuelas de Formación que tengan el mismo domicilio social que entidades de ocio y tiempo libre que trabajen en el ámbito de la infancia y juventud, si estas últimas también solicitan ayudas al amparo del presente Decreto Foral.

4. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el presente Decreto Foral, conforme a los establecido en los artículos 3.1 y 24.2 de la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres:

cve: BAO-BOB-2016a092

— Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, onartze- edo sartze-sistema, jarduna, ibilbidea edo estatutuak dituzten pertsona juridikoak.

— Sexua dela-eta inor baztertzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona juridikoak, bai eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legea dela-bide debeku hori ezarri zaienak ere.

— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legean ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeak.

— Onartze-prozesuan, jardunean edo egiten dituzten jardueretan sexuagatiko diskriminazioa egiten duten elkarteak, salbu eta sexuen arteko ezberdintasunak zuzendu nahi badituzte -Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridikoa onesten duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12.4 artikuluaren arabera- eta hezkidetza bultzatzen badute sexu biek jardueraren garapenean parte-hartzea sustatuz.

**3. artikulua.—*Diru-laguntzak emateko araubidea***

Laguntzak emateko araubidea ezohikoa den hainbanaketa sistema izango da; Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluan aurrez ikusita dago sistema hori.

Bizkaiko Foru Aldundiak ezohikoa den hainbanaketa-araubidea aukeratu du diru-laguntza hauetarako deialdia egitean. Izan ere, deialdi honen hartzaile diren erakundeek -foru dekretu honen 2. artikuluan ezarritako baldintzak bete ondoren eta haien proiektuen arteko erkaketarik egin gabe- deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzten jasoko dituzte diru-laguntzak. Horretarako, foru dekretu honetan aurrekontu-muga gisa gehienez ere ezarritako guztizko zenbatekoa hainbanatuko da.

**4. artikulua.—*Eskabideak eta epeak***

1. Eskabideak foru dekretu honen I-E1 eranskin gisa doan eredu ofizialean aurkeztu behar dira, legezko ordezkariak izenpetuta eta hurrengo zenbakietan adierazitako agiri osagarriak erantsita, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara eta Kultura Saileko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalaren bulegoetan (Bilboko Rekalde zumarkalea, 30, 1), astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era bitartean; edota, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako eran. Eskabide-eredua http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak web-orrian eskuratu daiteke. Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak -goragoezarritako baldintzak beteta- Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez aurkezteko, egoitza abian jartzen denean.

2. Eskabideak aurkezteko epea foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2016ko ekainaren 6ra artekoa izango da, biak barne.

Deialdi honetara aurkeztu nahi diren erakundeek eskabide bakarra bete beharko dute, eta, bertan, II-E3. eranskin bana sartu beharko dute udaleku/kanpamentu bakoitzeko. Deialdira aurkezteko muga bakarra foru dekretu honen 1. artikuluaren 4. zenbakian jasotzen dena izango da.

3. Dokumentazio orokor hau ere erantsi beharko da, II-E3 eranskinaren arabera:

a) Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia egiaztatua, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak emandakoa edo Zerga Administraziorako Agentzia Estatalak emana, estatutuen kopia eta Erakundeen Erregistroan erakundearen izen-ematearen kopia.

b) Erakundearen estatutuen fotokopia

c) Dagokion Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria

— Las personas jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

— Las personas jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, y las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

— Las entidades que incumplan las obligaciones establecidas en la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

— Las asociaciones que en su proceso de admisión, en su funcionamiento, o en las actividades que realicen, discriminen por razón de sexo, salvo en los supuestos en que se busque un efecto de corrección de desigualdades entre sexos en aplicación del artículo 12.4 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y favorezcan la coeducación, mediante la participación de ambos sexos en el desarrollo de la actividad.

**Artículo 3.—*Régimen de concesión***

El régimen de concesión de las subvenciones se rige por el excepcional sistema de prorrateo, previsto en el artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

El régimen excepcional de prorrateo por el que ha optado la Diputación Foral de Bizkaia al convocar estas subvenciones, responde a que esta convocatoria está dirigida a entidades que, cumpliendo los requisitos exigidos por el artículo 2 del presente Decreto Foral, y sin darse una comparación entre los distintos proyectos, percibirán las subvenciones en base al cumplimiento de los requisitos exigidos en la presente convocatoria, procediéndose al prorrateo del importe global máximo dispuesto como límite presupuestario en el presente Decreto Foral.

**Artículo 4.—*Solicitudes y plazos***

1. Las solicitudes se deberán presentar en el modelo oficial que se adjunta como Anexo I-E1 acompañados de la documentación exigida en los siguientes apartados y suscritas por la persona representante legal, en las oficinas de la Sección de Programas Socioeducativos del Departamento Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, sitas en la Alda. Rekalde, 30, 1.º en Bilbao (de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y accesible a través de la web http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak. También podrán presentarse solicitudes en las condiciones establecidas anteriormente a través de la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, cuando ésta sea operativa.

2. El plazo para la presentación de solicitudes será desde el día siguiente al de publicación del presente Decreto Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia» hasta el 6 de junio de 2016, ambos inclusive.

Las entidades interesadas en acceder a esta convocatoria, deberán cumplimentar una única solicitud en la que incluirán un anexo II-E3 por cada colonia/campamento, sin que exista más restricción que la recogida en el apartado 4, del artículo 1 del presente Decreto Foral.

3. Asimismo, deberá adjuntarse la siguiente documentación de índole general según modelo oficial Anexo II-E3:

a) Copia compulsada de la tarjeta del Código de Identificación Fiscal de la entidad solicitante emitida por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia o por la Agencia Estatal de la Administración Tributaria.

b) Fotocopia de los estatutos de la entidad.

c) Certificado de inscripción en el Registro correspondiente.

cve: BAO-BOB-2016a092

Hori guztia, dokumentazioa ez bada aurretiaz aurkeztu foru aldundi honetako Euskara eta Kultura sailan, eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.

4. Honako dokumentazio espezifiko hau erantsi beharko da, II-E3 eranskinaren arabera:

— Jardueren proiektua:

• Jarraipen lanak erraztearren, udaleku irekietarako eta, gainera, egutegi zehatza aurkeztu behar da. Bertan, programatutako egun bakoitzean garatu beharreko jarduerak eta jarduerak non egingo diren zehaztuko da.

• Kanpamentu ibiltarietarako ere, jarraipen lanak errazteko, egutegi zehatza aurkeztu behar da. Bertan, programatutako egun bakoitzean egingo diren etapak eta kanpatzeko aurrez ikusitako lekuak zehaztuko dira.

• Udaleku/kanpamentu bat baino gehiago egin nahi izanez gero, II-E3 eranskineko dokumentazio espezifikoa bete behar da programatutako udaleku/kanpamentu bakoitzeko (udalekua, udaleku irekia, kanpamentu finkoa, kanpamentu ibiltaria edo auzolandegia).

— Kontratatutako erantzukizun zibileko aseguruaren fotokopia. Aseguru horrek Eusko Jaurlaritzaren irailaren 1eko 169/2000 Dekretuan ezarritako baldintzak bete behar ditu.

— Planoa edo krokisa, udalekua/kanpamentua non egingo den kokatzeko, argi azalduko da zein diren sarbideak hurbileneko errepidetik, edo lekuaren koordenadak halakorik balego.

— Txandaren datuak: txanda zenbakia, erakunde eskatzailea, erakunde antolatzailea, jarduera motaren deskripzioa (udalekua, udaleku irekia, kanpamentu finkoa, kanpamentu ibiltaria edo auzolandegia), jardueran erabiliko den/diren hizkuntza edo hizkuntzak, udalekua/kanpamentua egiteko lekua eta egunak, aurrez ikusitako parte-hartzaile kopurua eta parte-hartzaileen adina eta sexua.

— Zuzendariaren eta begiraleen titulazioen kopia egiaztatuak, eta halakorik balego, elikagaien manipulatzailearena eta soroslearena ere bai.

— Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala emandako ziurtagiri negatiboak, adingabeekin lan egin ohi duten profesional zein boluntario guztienak.

— Udalekua/kanpamentuaren arduradunek euskara mailari dagokion titulazioaren kopia egiaztatua, titulaziorik izanez gero, edo, bestela, ikasketak zein hizkuntza eredutan egin diren adieraztea.

— Kanpamentuen kasuan, kanpamentua kokatuko den lurren jabearen baimena, eta, jabea partikular bat bada, udalaren edo administrazio batzaren aldeko txostena.

5. Udaleku/kanpamentua amaituta, eta dekretu honen 5. artikuluan adierazitako irizpideak aplikatzeko zein diru-laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko behar diren datuak lortzeko, erakunde eskatzaileek 2016ko irailaren 15era arteko epea dute (egun hori barne) honako agiri hauek aurkezteko, II-E3 eranskinaren arabera, Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalean (Bilboko Rekalde zumarkalea, 30, 1), astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era bitartean:

— Jarduera egin dela egiaztatzeko agiria, jarduera egin den lekuko udal administrazioak edo lurralde administrazioak emana, II-E3 eranskinaren arabera. Kanpamentu ibiltariak antolatzen badira, honako hauek aurkeztu beharko dira, gutxienez, goian aipatutako epearen barruan: kanpamentuak egin direla egiaztatzeko aipatutako agirietako bi, kanpamentua ibili den tokiei dagozkienak.

— Parte-hartzaile zein begirale eta praktiketako begiraleen jardueraren arduradunen zerrendak. Bertan, honako hauek adieraziko dira: izena, bi abizen, bizi diren udalerria, adina, sexua, ezaugarriak (gizarteratzea behar duten parte-hartzaileak sartzea, desabantaila, gizarte-bazterkeria, eta nazioarteko aldi

Todo ello salvo que dicha documentación hubiera sido aportada con anterioridad en el Departamento Foral de Euskera y Cultura de esta Institución Foral y no hubiera sufrido modificación durante los últimos tres años.

4. También deberá adjuntarse la siguiente documentación específica según Anexo II-E3:

— Proyecto de actividades:

• Para colonias abiertas, con el fin de facilitar las tareas de seguimiento, será necesario aportar, además, un calendario concreto en el cual figuren las actividades a desarrollar y localización de las mismas, en cada uno de los días programados.

• Para campamentos volantes y con la misma finalidad de facilitar el seguimiento de los mismos, será necesario aportar un calendario concreto en el cual figuren las etapas y lugares previstos de acampada, en cada uno de los días programados.

• En caso de tener prevista la realización de más de una colonia/campamento, se cumplimentará la documentación específica del anexo II-E3 (colonias, colonias abiertas, campamentos fijos, campamentos volantes y campos de trabajo) por cada una de ellas.

— Fotocopia del seguro de responsabilidad civil contratado, que deberá reunir las condiciones establecidas en el Decreto 169/2000 de 1 de septiembre, del Gobierno Vasco.

— Plano o croquis del emplazamiento del lugar de celebración de la colonia/campamento, precisando con claridad los accesos desde la carretera más cercana, o bien las coordenadas del lugar si los hubiera.

— Datos de la tanda: número de tandas, entidad solicitante, entidad organizadora, descripción del tipo de actividad (colonia, colonia abierta, campamento fijo, campamento volante o campo de trabajo), idioma o idiomas en el/los que se va a desarrollar la colonia/campamento lugar y fechas de celebración, número de participantes previsto, edades y sexo de los/las mismos/as.

— Copias compulsadas de las titulaciones del/a Director/a y monitores/as, así como, del manipulador/a de alimentos o socorrista si los hubiere.

— Certificados negativos del Registro Central de Delincuentes Sexuales para todos los profesionales y voluntarios que trabajan en contacto habitual con menores.

— Copia compulsada de la titulación correspondiente al nivel de euskera del personal responsable de la colonia/campamento en caso de disponer de dicha acreditación o bien indicación del modelo lingüístico en el que hayan realizado sus estudios.

— Para campamentos, autorización del propietario del terreno de ubicación, y, si éste fuera un particular, informe favorable del Ayuntamiento o Junta Administrativa correspondiente.

5. Realizada la colonia/campamento y de cara a la obtención de los datos que permitan la aplicación de los criterios más adelante señalados en el artículo 5, y posterior cálculo de las correspondientes cuantías, las entidades solicitantes tendrán de plazo hasta el 15 de septiembre de 2016 inclusive para entregar en las oficinas de la Sección de Programas Socioeducativos, sitas en la Alda. Rekalde, 30, 1.º en Bilbao (de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 h la siguiente documentación según Anexo II-E3:

— Certificado de celebración expedido por la Administración municipal o territorial correspondiente al lugar donde se hayan desarrollado según Anexo II-E3. En el supuesto de que se realicen campamentos volantes deberán entregar, dentro del mismo plazo, al menos, dos de las mencionadas certificaciones de celebración, correspondientes a los lugares por donde haya transcurrido el campamento volante.

— Listados de participantes, del personal responsable de la actividad, de monitores/as y de monitores/as en prácticas que incluyan nombre, dos apellidos, municipio de residencia, edad, sexo, características (incorporación de participantes de integración, en desventaja o exclusión social y acogimiento

cve: BAO-BOB-2016a092

baterako harrera udan), jarduera egiteko erabili den/diren hizkuntza/k eta joateagatik ordaindutako zenbatekoa, II-E3. eranskinaren arabera.

«Sexu» aldagaiari dagokionez (II-E3 eranskina), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeko 2.3 artikuluan zein foru dekretu honetako 2.2 artikuluan xedatutako ondorioetarako, erakundeek bide hauetako bat edo batzuk erabiliz egiaztatu ahal izango dute esperientzia eta ibilbide nahikoak dituztela emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunerako jardueren garapenean:

- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arlo espezifikoan azken hiru urteetan egindako jarduera eta lan nabarmenenak adierazita. Enpresa sortu berria bada, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arlo espezifikoan jarduera eta lanak egiteko konpromisoa.
- Langileek generoaren arloan dituzten tituluak, prestakuntza eta curriculuma.
- Erakundearen sorrera-eskrituran edo estatututan helburu gisa agertzea emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea.
- Berdintasunaren arloko enpresa-egiaztagiri bat edo -bereizgarri bat, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean entitate laguntzailearen izatearena edo antzeko agiri ofizial bat.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko plan bat diseinatu eta aplikatu izana, eta/edo familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko neurrien plan bat.
- Erakundearen batzar, zuzendaritza-organo edo administrazio-kontseiluko kideen %40, gutxienez, emakumezkoak izatea.

— Egindako jarduera guztien deskripzioa, honako hauek zehaztuta: genero-berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeria ezari lotutako jarduera guztien zerrenda eta deskribapen xehetua; zerbitzua eman den bitartean gertatutako gorabeherak eta datu interesgarriak, eta hobetzeko proposamenak.

6. Jarraipen-lanak errazteko, erakunde interesdunek, udalekua/kapamentua egiten duten bitartean, honako agiri hauek izan beharko dituzte:

— Dauden lekuan egoteko baimena eta udalaren edo administrazio batzaren aldeko txostena.

— Halakorik dagoenean, dagokien osasun-zerbitzuak emandako txostena.

— Zuzendaritza-taldeko eta zerbitzuetako langileen (zuzendaria, begiraleak, elikagaien manipulatzaileak, soroslea, eta abar) tituluen kopiak edo ziurtagiriak.

— Parte-hartzaileen izenen zerrenda.

— 18 urtetik beherakoen eta desgaitasunen bat dutenen kasuan (legez aitortutako desgaitasuna badute), gurasoen edo tutoreen baimena.

7. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

8. Beharrezkotzat jo izanez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalak aurkeztutako eskabideak ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei. Errekerimendua egin zaion eskatzaileak agiri horiek ezarritako epearen barruan aurkezten ez baditu, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta eskabide hori artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren.

9. Banku-datuak aldatu dituzten erakundeek, sortu berriak direnek eta 2015eko ekitaldian, udalekuak eta udako kanpamentuak antolatzeko, garatzeko eta/edo ekintza horietan parte hartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren deialdietako ezeini heldu ez diotenek hartzekodun-fitxa aurkeztu behar dute, behar bezala beteta, Bizkaiko

internacional temporal durante el período estival), idioma o idiomas en el/los que se ha desarrollado la actividad e importe satisfecho en concepto de cuota de asistencia según Anexo II-E3.

En relación a la variable «sexo» (Anexo II-E3), y a los efectos previstos en los artículos 2.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y 2.2 del presente Decreto Foral, la acreditación de la experiencia y trayectoria en el desarrollo de actuaciones dirigidas a la igualdad efectiva de mujeres y hombres, podrá realizarse demostrando, por uno o varios de los medios siguientes:

- La trayectoria y experiencia de la entidad en materia específica de igualdad entre mujeres y hombres, señalando actuaciones y trabajos más relevantes realizados en los tres últimos años. En caso de tratarse de una entidad nueva, compromiso de emprender actuaciones y trabajos en materia específica de igualdad entre mujeres y hombres.
- La titulación, formación y currículo del personal en materia de género.
- Que en la escritura fundacional o en los estatutos de la entidad figure como objetivo de la misma, el favorecimiento de la igualdad de hombres y mujeres.
- El disponer de un certificado o distintivo empresarial en materia de igualdad, o como entidad colaboradora en igualdad de Oportunidades entre mujeres y hombres, o cualquier otro análogo de carácter oficial.
- El haber diseñado y aplicado un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres, y/o de medidas de conciliación para la vida familiar, laboral y personal.
- Que la Junta, órgano directivo o consejo de administración de la entidad esté participado al menos en un 40% por mujeres.

— Descripción de todas las colonias/campamentos llevadas a cabo, incluyendo la relación y descripción detallada de aquellas relacionadas con la igualdad de género y la no violencia contra las mujeres así como incidencias y datos de interés acontecidos durante la prestación del servicio, y propuestas de mejora.

